**Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Pasaiako Udalaren arteko lankidetza hitzarmena, Pasaiako Arrokaundieta aterpetxeko eraikuntza eta egokitze lanak egitekoa.**

**Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Pasaia, para la realización de trabajos de construcción y acondicionamiento del Albergue Arrokaundieta en el término municipal de Pasaia.**

Donostia, 2017ko maiatzaren 10a

San Sebastián, a 10 de mayo de 2017

**ELKARTU DIRA**

Batetik, Denis Itxaso Gonzalez jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean, hala ezartzen baitute ondorengo arauek: 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzkoak, 40.3.b) artikuluan; 2015eko ekainaren 24ko 03/2015 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzen dituenak, 6. artikuluan; eta 2016ko uztailaren 19ko 16/2016 Foru Dekretuak, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak.

Bestetik, Izaskun Gomez Cermeño andrea, Pasaiako Udaleko alkate gisa eta Udalaren izenean.

Bi alderdiek hitzarmen hau egiteko legezko ahalmen nahikoa aitortzen diote elkarri, eta honako azalpen hauek eman dituzte:

**SE REUNEN**

De una parte, D. Denis Itxaso González, en nombre y representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de acuerdo con lo establecido en el artículo 40.3.b) de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, asi como en el artículo 6 del Decreto Foral 3/2015, de 24 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones y en el Decreto Foral 16/2016, de 19 de julio, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes.

De otra, Dña. Izaskun Gómez Cermeño en su calidad de Alcaldesa del Ayuntamiento de Pasaia y en representación del mismo.

Ambas partes se reconocen capacidad legal suficiente para el otorgamiento del presente Convenio y, al efecto

**AZALPENAK**

**I.-** Gipuzkoako Foru Aldundiak aisia eta denbora libreko gaietan duen erronka nagusietako bat da Gipuzkoak bere beharrak asetzeko behar dituen aisialdiko ekipamendu egokiak izan ditzan sustatzea. Horretarako, foru erakundeak sustatzen eta bultzatzen du elkarteek garatzen dituzten aisia eta denbora libreko jarduerak gauzatzea

**EXPONEN**

**I.-** Uno de principales retos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en materia de ocio y tiempo libre, es promover que el Territorio Histórico disponga de equipamientos lúdicos adecuados para satisfacer sus necesidades. Para ello, esta institución foral impulsa y promociona el uso y disfrute de espacios públicos que favorezcan el

ahalbidetzen duten espazio publikoen erabilera.

desarrollo de actividades de ocio y tiempo libre desarrolladas por distintos actores del tejido asociativo.

**II.-** Pasaiako Udalak, bere eskumenen barruan, gazte politika bat garatzen du, zeinaren xedea baita udalerriko aisia jarduerak sustatzea, besteak beste eta bereziki haur eta gazteentzako ekipamendu eskaintzaren bidez.

**II.-** Que el Ayuntamiento de Pasaia, en el ámbito de sus competencias, desarrolla una política de juventud orientada a fomentar la actividad lúdica en el municipio a través, entre otras opciones, de la oferta de equipamientos dirigidos a la ciudadanía especialmente en su etapa infantil y juvenil.

**III.-** Jarduera ildo horretako esku hartzeetako bat da Arrokaundieta aterpetxeko eraikuntza eta egokitze lanak egitea.

**III.-** Que una de las intervenciones incluidas en esta linea de actuación es la realización de trabajos de construcción y acondicionamiento del Albergue Arrokaundieta.

**IV.-** Proiektuaren kostua 154.734,05 eurokoa dela kalkulatu da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo duen gehieneko ekarpena, orain onesten den hitzarmenaren arabera, 150.000,00 eurokoa da.

**IV.-** Que el coste previsto de ejecución del proyecto se estima en 154.734,05 euros, siendo la aportación máxima a efectuar por la Diputación Foral de Gipuzkoa, en virtud del Convenio que ahora se aprueba, de 150.000,00 euros.

**V.-** Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuaren 2017ko aurrekontuan 150.000 euro xedatu dira Pasaiako Udalaren alde, Arrokaundieta aterpetxea birmoldatzeko eta egokitzeko proiektua finantzatzeko diru laguntza izendunaren bidez, aurrekontuko 1.220.200.761.01.01. 2017 kontu sailaren kargura.

**V.-** Que, en el Presupuesto de 2017 del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, se ha consignado una subvención nominativa a favor del Ayuntamiento de Pasaia dotada con un crédito de 150.000,00 euros, para financiar el proyecto de remodelación y adecuación del Albergue Arrokaundieta, con cargo a la partida presupuestaria 1.220.200.761.01.01. 2017.

**VI.-** Hain zuzen ere horregatik adostu dute bi aldeek lankidetza hitzarmen hau sinatzea, honako klausula hauen arabera.

**VI.-** Es por ello que las partes intervinientes han acordado suscribir el presente Convenio de Colaboración con arreglo a las siguientes

## KLAUSULAK

### Lehena.- Xedea

Hitzarmen honen xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Pasaiako Udalaren artean lankidetza esparru bat ezartzea, Pasaiako Arrokaundieta aterpetxeko eraikuntza, hobekuntza eta ekipamendu lanak egiteko.

## CLÁUSULAS

### Primera.- Objeto

Es objeto del presente convenio establecer un marco de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Pasaia, en orden a la ejecución de las tareas de construcción, mejora y equipamiento del Albergue Arrokaundieta ubicado en el municipio de Pasaia.

**Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren betebeharrak**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Pasaiako Arrokaundieta aterpetxea birmoldatzeko eta egokitzeko proiektua finantzatzeko konpromisoa hartzen du, gehienez ere ehun eta berrogeita hamar mila (150.000,00) euroko diru laguntza izenduna emanez, aurrekontuko 1.0220.200.761.01.01 2017 kontu sailaren kargura.

Aipatutako zenbateko hori lanak amaitu ondoren ordainduko da indarrean dagoen aurrekontu ekitaldian, Pasaiako Udalak egindako inbertsioen obra ziurtapenak edo justifikazioak aurkezten dituenean –dagozkien fakturekin batera–, edo, hala badagokio, egindako inbertsioen zenbateko osoa aurretik ordaindu dela egiaztatzen duen udal ziurtapena aurkeztutakoan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ez ditu inola ere finantzatuko aipatutako diru laguntzaren zenbatekoa gainditzen dituzten aurrekontu desbideratzeak.

**Segunda.- Obligaciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa.**

La Diputación Foral de Gipuzkoa se compromete a financiar la ejecución de las obras de reforma y mejora del Albergue Arrokaundieta en Pasaia, mediante la concesión de una subvención nominativa por un importe máximo de ciento cincuenta mil (150.000,00) euros, con cargo a la partida presupuestaria 1.0220.200.761.01.01 2017.

La referida cantidad será hecha efectiva a la finalización de las obras, en el presente ejercicio presupuestario, contra las certificaciones de obra o justificantes suficientes de las inversiones realizadas -acompañado de sus correspondientes facturas- que se presenten por parte del Ayuntamiento de Pasaia, ó en su caso, contra certificación municipal acreditativa del previo abono del importe total de las inversiones realizadas.

En ningún caso se financiarán desde la Diputación Foral de Gipuzkoa desviaciones presupuestarias que superen la cuantía de subvención señalada.

**Hirugarrena.- Pasaiako Udalaren betebeharrak**

1.- Hitzarmen honen arabera Pasaiako Udalaren betebeharrak dira:

- Zaintzea lanak egingo direla Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuari aurrez aurkeztutako proiektuaren eta aurrekontuaren arabera. Lanak, indarrean dagoen aurrekontu ekitaldian egingo dira.

- Hitzarmen honetan sartzen diren obrak kontratatzerakoan, Sektore Publikoko kontratuei buruz indarrean dagoen arautegian jasotako

**Tercera.- Obligaciones del Ayuntamiento de Pasaia**

1.- El Ayuntamiento de Pasaia se obliga en virtud del presente convenio a:

- Velar por que las obras se ejecuten de conformidad con el proyecto o presupuesto presentado previamente al Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa. La ejecución de las obras se realizará en el presente ejercicio presupuestario.

- Someterse, en la contratación de las obras objeto del presente convenio, a los principios recogidos en la vigente normativa sobre

printzipioak errespetatzea.

- Erraztasunak ematea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiko teknikariei obrak kontrolatu eta horien jarraipena egiteko.

- Kontabilitatean jasotzea hitzarmen honetan aurreikusitako foru ekarpenak.

- Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuari jakinaraztea helburu berdinarekin beste administrazio publiko batzuek, edo entitate publiko edo pribatuek, nazional edo nazioartekoek, emandako diru laguntzak.

- Diruz lagundutako jarduera edo jarduketaren izaera publikoaren berri ematea. Besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudi instituzionala sar daiteke, edo finantzaketa publikoari buruzko legendak jar daitezke karteletan, plaka oroigarrietan, material inprimatuetan, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, edo diru laguntza hedabideetan aipatu daiteke.

- Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea diruz lagundutako jarduera eta programen inguruko adierazpen guztietan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruan euskararen erabilera normalizatzeko 2013-2017 aldirako planaren arabera (2014ko abenduaren 31n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta).

- Hizkeraren berdintasunezko erabilera bermatzea hitzarmen honen xede diren dokumentazioan, publizitatean, irudietan edo materialetan, baztertzea emakumeen irudi diskriminatzaileak edo estereotipo sexistak, eta sustatzea irudietan berdintasun baloreak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero identitate zein

contratos del sector público.

- Facilitar al personal técnico de la Dirección General de Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa las labores de control y seguimiento de las obras.

- Hacer constar en su contabilidad las aportaciones forales contempladas en este convenio.

- Comunicar al Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, otorgadas por otras administraciones públicas o por entidades públicas o privadas, nacionales o internacionales.

- Dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de las actividades o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de la imagen institucional de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

- Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones referidas a las actividades y programas subvencionados, de acuerdo con lo dispuesto en el Plan de normalización del uso del euskera en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de sus organismos autónomos para el periodo 2013-2017, publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del 31 de diciembre de 2014.

- Garantizar que en toda la documentación, publicidad, imagen o materiales referidos al objeto de este convenio se emplee un uso igualitario del lenguaje, se evite cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y se fomente una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de

rolen pluraltasuna.

- Instalazioaren publizitate ustiapena egiten bada, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesletza ageri dela bermatzea, hain zuzen ere egindako ekarpenaren arabera.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko titularrarekin batera publikoan aurkeztea lankidetza akordio honen xehetasunak eta irismena, bi aldeek adosten dituzten termino eta formatuetan. Bermatuko da, Gipuzkoako Foru Aldundiko beste kide batzuk ere bertan izateko aukerari eragin gabe, departamentuko ordezkari batek foru erakundearen ordezkari izatea programa honen sustapeneko ekintza formaletan. Orobat aztertuko da lankidetzaren edo proiektuaren beraren emaitzaren balantze publiko bat egiteko aukera, amaitzen denean. Zehazki, entitate onuradunak beren gain hartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiaren presentzia bermatzea instalazioaren aurkezpenean, inaugurazioan eta horrelako ekitaldietan

- Lanak amaitzea eta 2017ko abenduaren 15a baino lehen aurkeztea egindako inbertsio osoa justifikatzen duen dokumentazioa. Aipatutako justifikazioa hitzarmen honen bigarren klausularen bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera egingo da.

- Hitzarmen honen xedearekin zerikusia duen eskatutako datu guztiak ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, eta indarrean dagoen arautegian aurreikusitako egiaztatze eta finantza kontrol lanak onartzea.

2.- Era berean, Pasaiako Udalak Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauan diru laguntzen onuradunei ezartzen zaizkien gainerako betebeharrak bete beharko ditu.

roles e identidades de género.

- Garantizar, en caso de explotación publicitaria de la instalación, la constancia del patrocinio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de forma acorde a su aportación.

- Presentar públicamente junto al titular del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa los detalles y alcance del presente acuerdo de colaboración, en los términos y formatos que ambas partes convengan. Se garantizará que, sin perjuicio de la presencia de otros miembros de la Diputación Foral de Gipuzkoa, un/una representante del departamento firmante ostente la representación de la entidad foral en los actos formales vinculados a la promoción de este programa. Del mismo modo se analizará la conveniencia de realizar un balance público del resultado de la colaboración o del propio proyecto, al término del mismo. En particular la entidad beneficiaria se compromete a garantizar la presencia de un/una representante del departamento firmante en los actos de presentación, inauguración y análogos relativos a la instalación.

- Finalizar la ejecución de las obras y presentar, con anterioridad al 15 de diciembre de 2017, la documentación justificativa de la totalidad de las inversiones realizadas. Dicha justificación se realizará en la forma establecida en el párrafo segundo de la cláusula segunda del presente convenio.

- Facilitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas cuantos datos sean solicitados en relación con el objeto de este convenio y someterse a las actuaciones de comprobación o control financiero previstas en la normativa vigente.

2.- El Ayuntamiento de Pasaia deberá cumplir igualmente las obligaciones que se establecen en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, para las entidades beneficiarias de

subvenciones.

**Laugarrena.- Zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzakoak betetzea.**

Hitzarmen honetatik ondorioztatzen den diru laguntza ordaintzeko unean, Pasaiako Udalak egiaztatu behar du egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak. Ondorio horietarako, hitzarmen hau sinatzeak berarekin dakar Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuari baimena ematea dagozkion datuak zuzenean eskuratzeko horiek emateko eskumena duten administrazioetatik.

**Cuarta.- Cumplimiento de las obligaciones fiscales y con la Seguridad Social.**

En el momento de efectuar cada uno de los abonos de la subvención objeto de este convenio, el Ayuntamiento de Pasaia deberá acreditar que se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social. A estos efectos, la suscripción del presente convenio conlleva la autorización al Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes para obtener directamente dichos datos de las administraciones competentes para suministrarlos.

**Bosgarrena.- Beste laguntza eta diru laguntza batzuekiko bateragarritasuna.**

1.- Hurrengo paragrafoan xedatzen dena ezetsi gabe, hitzarmen honek xedetzat duen diru laguntza bateragarria da beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk -izan Estatukoa, izan Europar Batasunekoa, izan nazioartekoa– eman lezakeen helburu bereko laguntza, diru laguntza, diru sarrera edo baliabiderekin.

2.- Dena dela, diru laguntzaren zenbatekoa ezingo da xede duen jardueraren kostua baino handiagoa izan, bera bakarrik nahiz beste laguntza, diru laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera.

**Quinta.- Compatibilidad con otras ayudas y subvenciones.**

1.- La subvención objeto del presente convenio será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo siguiente.

2.- No obstante, el importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

**Seigarrena.- Hitzarmenaren baldintzak aldatzea eta aldi berean beste diru laguntza batzuk jasotzea.**

Diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen edozein aldaketak eta, edozein kasutan, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuen aldetik emandako laguntzak aldi berean jasotzeak, emandako diru laguntza aldatzea ekarri ahal izango dute.

**Sexta.- Alteración de las condiciones del convenio y concurrencia de ayudas.**

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la ayuda, y en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, estatales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de dicha concesión.

**Zazpigarrena.- Hitzarmena ez betetzea**

Pasaiako Udalak ez baditu betetzen hitzarmen honetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak, diru laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat joko zaio, osorik edo zati batean; eta jasotako dirua osorik edo zati batean itzuli beharko du, dagozkion berandutza interesekin batera, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, 35. artikuluan xedatutakoaren arabera; halaber, foru arau horren 49. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoari jarraituz, hortik erator daitezkeen erantzukizunei ere aurre egin beharko die.

**Séptima.- Incumplimiento del presente convenio.**

El incumplimiento por parte del Ayuntamiento de Pasaia de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en el presente convenio, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente y al pago de los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, y a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en su artículo 49 y siguientes.

**Zortzigarrena.- Iraupena**

Hitzarmen hau bi aldeek sinatzen duten egunean jarriko da indarrean, eta bere xedea bete arte edota indargabetu arte egongo da indarrean; edonola ere, 2017ko abenduaren 31n amaituko da.

**Octava.- Duración**

Este convenio entrará en vigor el día de su firma por ambas partes y su vigencia finalizará con el cumplimiento del objeto del mismo o su resolución, y, en todo caso, el 31 de diciembre de 2017.

**Bederatzigarrena.- Araudi aplikagarria**

Hitzarmen honetan xedatutakoaz gain, arau hauek aplikatuko dira: 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko eta hori garatzen duen Erregelamendua, hain zuzen ere, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretu bidez onartutakoa; 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko finantza eta aurrekontu araubideari buruzkoa; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; eta horiekin batera, laguntzak eta diru laguntzak emateko prozedurari aplikatu beharreko araubide orokorra xedatzen duen eta indarrean dagoen gainontzeko araudia.

**Novena.- Normativa aplicable**

Además de lo dispuesto en el presente Convenio, serán de aplicación la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril; la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa; la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público, y demás normativa en vigor que regule el régimen general aplicable al procedimiento de concesión de subvenciones y ayudas.

**Hamargarrena.- Desadostasunak ebaztea**

Lankidetza hitzarmen hau interpretatzerakoan, aplikatzerakoan edo ondorioetan desadostasunik

**Décima.- Resolución de controversias.**

Para cualesquiera controversias que puedan surgir en la interpretación, aplicación y efectos

sortzen bada, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa izango da eskumenduna.

del presente convenio de colaboración será competente la jurisdicción contencioso-administrativa.

Eta adierazitakoarekin beren adostasuna azaltzeko, hitzarmen hau izenpetzen dute bi alderdiek, ale bikoiztuan baina eragin bakarrerako, idazpuruan aipaturiko leku eta egunean.

Y en prueba de conformidad, suscriben las partes el presente documento por duplicado ejemplar y a un solo efecto, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

**Gipuzkoako Foru Aldundia**

**Sin.: Denis Itxaso González**

**Pasaiako Udala**

**Sin.: Izaskun Gómez Cermeño**